

ITXALUPA

ELGOIBARKO-
KASTOLAKO ALDIZKARIA



Pasa dezagun paketsu
baita ere
guztiz osasuntsu
gurea den urtea
eta izan dadila denentzat berritsu.
Zerbait lortzea nahi badugu
batu beharko dugu indartsu
eta denok batera
egin dezagun lan gogortsu.

G O R A H A U R R E N U R T E A ! !

Zer esaten
dute?

Zenk idatz

IKASTOLA

TILING
TILIG

2911



TXALUPA HONETAN BEREZIKI

PARRE HARTU DUTENAK:

Patxi Etxeberria, Txomin,

Kastrillejo, Nerea Lariz,

Jokin Ormazabal, Jaime

Martinez, Gilen Regil,

F. Javier Rezola, Luis

Txurruka, Inaxio Mugerza,


Alasne Rementeria, Xegundo

Zengotita

AURKIBIDEA

KAIKO
GUREKIN
ERITZIAK
GAIA
BERRIAK
KIROLAK
PORRUSALDA
INKESTA
HIZTEGLA

eta gauza gehiago.....



TXALUPA

KAIKO

Azkenean, otera dugu hau ere!!

Kostatu zaigu. Izan ere, desanimatuta ge-
urden. TXALUPA ez duzuela gogo handiz
irakurtzen jakin duguilako.

Baina animatuta gara eta zuek
irakurriko duzuenaren itxarpena ere lu dugu.

Baretz!! Irakurriko duzuela!!

Egum bateam itasoom

oocaim

Pilla bat zuden, eta

gizon bat buzeatzen joan zen

baia bale bat etorri zen

gizona hil nahiz zuen

baia bale emeak

bere laguna zela

esam zion eta

er zuen hil.


Koain

Koaron

ipuin hau

amaitu da.

2 N P N H



Egum bateam jaimito
futbola zuhaitzetik
!Krusten zegoen eta

goadabilatik multa

esam zion, eta

Jaimitok esam zion:

Eta zuk mola

duzu izena?

- Gasbanzito


- Ba, zuer ore multa

loypilatik

irten zarelako

Behin batean lapur bat jun zen
 Banku batera lapurtzera. Bost mi-
 lloi lapurtu zuen eta korrika jun
 zen bere furgonetan etzera. Begira-
 tu zuen sa dirua faltzua ote zen.
 Baina ez zen faltzua eta lapurra
 oso porik jarri zen

Ander Errasti



Behin baten baseeritar bat zen eta joan zen
 mendira ardiekin; batek eskapatu egin zuen eta
 gausean lotara joan zenian hotsoak / arripata zu-
 en. Beste egunian baseeritarra irten zen bira.

Egun baten jende batzuek pobre bizi ziren.
 Amak esan zien umeari: jun mendira hartu gaizak
 eta etorri etzera. Umeari galdutako egin zen eta roga-
 uerz hasi zen. Ume hark Pepito zuen zena.
 Maren eta Idoria ziren bere arrebak. Amak

hestutu egin zen.
 Pepitok etxe txiki bat bilatu zuen: tan, tan,
 jo zuen atean. Izeke zion amara zahar
 batetik eta esan zion: nor zara zu?
 Pepitok erantzun zuen: ni Pepito naiz.


Amarak esan zion: jun hemendik.
 Pepito jun egin zen eta gero bere etxea bila-
 tu zuen: tan, tan, tan, jo zuen atea eta
 amakuk ireki zion eta oso porik jarri ziren.
 Handik aurrera oso porik buze izan ziren
 etxeke denak.

Brigida Triomfo


HARTZA ETA HZIZETARIAK

Behin batean merdi artean hizi hartzari
 bizi ziren, batak aitor ziren izena eta
 besteak Inaki eta behin hartz bat.
 hiltzara joan ziren baina hartz
 handi, handi bat irten zen eta
 Korrika joan ziren etxera eta
 ez ziren gehiago aterri.

Bingen



Behin gaztelu bat zen eta
 han mamu bat bizi zen
 oso handia zan gaztelua
 eta soldado arko bizi ziren
 gaztelu polita zen eta bete
 egunkia zegoen baina
 egun batean yndioak
 etorri ziren gaztelua ophitxerri.




Igor





pinam

pinam



TXORIA

Behin batetan Luki zeneko txori bat
baroan bizi zen. Lukik lagun asko
zituen. Baina bere lagun handiena
kuki zen. Jolas guztietan jolasten
zuten. Egun batean herri batetara
joan ziren. Han herriko hartan
gauza asko ikusi zuten eta beti
herri herretara jolastera joaten
ziren.





DEBAKO ITSASOA

3. maila

Ni Debako itsasoa maiz. Udan bero asko egiten duenean pertsonak niregana etortzen dira.

Denak nire lagun izaten dira. Batzuetan itsasuntziak ere pasatzen dira nire gainetik. Arrainak ere nire lagunak dira. Ni oso pozik bizi maiz.

Nik arrinekkin eta pertsonekin berdin jolasten dut. Euri asko egiten duenean ni haundiagoa egiten maiz. Gainera udan, beroa edukitzen duenean nire burua gorantz jotzen da. Eta gero zeruan lainoak zortzen ditut. Eta beti berdin.

Orain kontatu dizuedan bezela da nire bizitza. Agur lagunok!

Miriam




Igande ilun eta euritsu batetan gertatutakoa.


Gaur lainoak negarrez ari dira S. Pedro gainean. Arrateko Amak ez du oraindik negarrik bota.

Zazpi Euskalerritan zazpi laino daude. Karakete gainean laino-errega da. Laino-errega linterna batekin doa Elgoibar gainetik. Laino-errega zaldi gainean doa. Zaldia ere negarrez darabua.

Deba hibaia pozik da. Euri tantak jausgailuetan jeisten ari dira.



Irene



ELENA ETA HIRU MARI SORGINAK

Behin herri polit eta handi batetan Elena izeneko neska polit bat bizi zen. Elenak ama hilda zuen eta aita Ameriketara lana egiten. Behin aitak, Elena hiru andrekin laga zuen. Batak Irene zuen izena, besteak Juani eta besteak Andrea. Oso txarrak ziren hirurak.

Gau gutxieta berbenak egoten ziren baina Elenari ez zioten lagatsen berbenetara joatea eta beti negarrez egoten zen. Baina egun batetan hirurak gelara joatea bururatu zitzaion. Han bere gutxioko jantziak zeuden. Politena hartu zuen, dotore dotore ipini zen eta inork ezagutu gabe joan zen berbenara. Han inork ez zuen ezagutu, baina mutil batek esan zion: nahi al duzu nerekin dantzari egitea? eta baietz erantzun zion.

Berbenak bukatu zenean mutilak Elenari esan zion berarekin eskontzea nahi zuela. Elenak baietz erantzun zion. Biharamonean eskonduko ziren eta pozez joan zen etxera. Etxean, arropa kendu eta berriak ere jelan utzi ondoren ohera sartu zen.

Heldu ziren hiru andra haiek eta esan zuten: oso formal dago Elena, bihar egun zoriotsu bat eukiko du. Heldu zen goizea eta Elenak esan zien: gaur eskondu egin behar dut. Bai? . Ba gaur zure aita dator. Bai, egia da bai, nere aita datorrela eta egun zoriotsu bat eukiko dugu.

IDOIA

Idoia ohetik jaikitzen denean garbitu eta orraztu egiten da denok bezala. Egun hartan, ikastolara joan behar zuen, baina euria rari zen.

- Ama! - dehadar zuen Idoiak
- Zer? - erantzun zion amak.
- Euria hasi da. - esan zion Idoiak.

Orduan tapatu-tapatuta ikastolara joan zen. Ilea busti zitzaion, aurpegia busti zitzaion, belakua busti zitzaion, eta putzuan sartu zenez hankak ere busti zitzaizkion.

Ikastolara iritsi zenean andereñoak galdetu zion:

- Zer gertatu zaizu?

Idoia ez zion. erantzun eta andereñoak esan zion:

- Joan zaitetz etxera.

Eta etxera joan zen dena bustita.

Maité Diez

LOREAREN POEMA

Lorea
zure usaina,
zoragarria da.
Zu polita zara eta,
umeek hartu egiten zaitute.



Maité Barandiaran

UME GAIZTOA

Egun batetan, ume txiki bat jaio zen.

Aitak esan zuen: - Ume hau gaiztoa etorriko da.

Ia bi urte zituen eta bilatzen zuen dena botatzen zuen. Ikastolan hasi zen eta oso gaizki portatzen zen. Etxera ailegatu zen eta amak beti galdetzen zion: - Ongi ibili al zara ikastolara?

- Bai, bai! - erantzuten zion umeak. Gainera, aitak ere galdera berdina egiten zion.

Azkenean, aspertu zen eta olia bota zion amari, eta, aitari ere.

Umea garret hasi zen eta..... Tim-ton, tinton!! Bere izeba etorri zen. Izeba aukian jarri eta zipli-zapla!.

Negarret amaitu zuen.

Omintza Aramburu

GORKAREN ABENTURA


Behin, ni jausi egin mintzen.
Erreka ondoan joan mintzen
Gero, etxera joan mintzen.
Amak errietan egin zidan.
Txarrena, bizikletan ezin muela
ibili, golpea sendatu arte.

Gorka


ARDOA

Behin, itsasuntzi bat galduta zegoen. Barruan 8 gizon zuden.
Itsasuntzitik ardo botilak
bakarrik, hartu zituzten.
Mozkorak irlara joan ziren.

Jon Alzibar



TRISTE PARRUZTE



ORDU ERDIKO GERTAKIZUNAK

idatei

Etxean bakarrik nengoen. Nire ama ez dakit nora joango zen. Ni aspertu egiten nintzen bakarrik etxean, eta leihora atera nintzen. Leihoan nengoela, etxera bateronbat sartu zela iruditu zitzaidan. Ate hotsa entzun nuen eta dardaraka hasi nintzen, bildur handia nuen eta txixalarria etorri zitzaidan, baina ez nintzen ausartzen komunez joaten. Balkoia piskat urrun zegoen eta nire etxeko bitarte batera sartu nintzen, makurtu nintzen, eta nire kuartoan zarata bat entzun nuen. Leihora joan nintzen, eta haize izugarri bat zebilela ohartu nintzen. Gero balkoira joan nintzen eta ikusi nuen nire kuartoko persiana irikita zegoela. Haizeak egin zuen, noski, ni bildurtu ninduen zarata.

HAUR ZALDIZALEA

Bazen behin, herri bat oso ttipia. Han haur asko bizi ziren, eta oso menditsua zen. Hango herri harek Altsasu zuen izena eta familia bat bazegoen. Familia hartako haurrak bi ziren; Mikelek zaldia zuen eta Anttonek ez. Antton gaiztoa zen, beti florerokak, landareak eta gauza gohiago ere, puskatzen zituelako ez zuen zaldirik.

Behin, Erregeak ailegatu ziren, eta Anttonek zaldia erregalatze esan zion aitari. Antton egon ezinik zegoen ohean eta amak berriz: "Antton etor hadi hona, ohera, bestela Erregeak ez dizute ikatza ez ekarriko".

Hurrengo goizean, han non dagoen zaldia ohe ondoan lotan. Antton esnatu zenean, zaldia han zegoela konturatu gabe, sukaldera joan zen eta amari esan zion:

- Ama non dago nere zaldi pinttoa?

- Zure zaldi pinttoa zure logelan dago.

Antton laisterka joan zen bere logelara eta han zegoen zaldi pinttoa. Handik bi ordutara edo Mikelek eta Anttonek Altsasuako plaza nagusian karrera bat edo eta laisterkaldi bat egin zuten. Antton zaldiarekin eta Mikel oinez. Anttoni kopa handi bat eta kopina eman zizkioten.

Gau hartan amak afari on bat jarri zuen eta zaldi pinttoa Anttonen ondoan jarri zen.

CRON EDUKO GREAT INUMAR

Handwritten notes at the top left.

Handwritten notes below the header.

Main body of handwritten text, appearing as bleed-through from the reverse side of the page.

BAK-BAJINAMA

Main body of handwritten text, appearing as bleed-through from the reverse side of the page.

Behin kalean urte bat bere tiorekin zihom. Eta txikile bat ikusi zuen urteak, eta esan zion:

— "Tio hartuko dut txikile hau lurretik?" Eta esan zion:

"Ez lurretiko gauzak ez dira jasotzen". Bazihorazem aurrerabatz

eta berriz txupatxuz bat ikusi zuen eta esan zion


— "Tio hartu daitezke txupatxuz hau lurretik?" Eta esan zion berriz:

"Ez lurretiko gauzak ezin daitezke hartu". Gero tio jauzi zen lurrera eta esan zion:

— "Ai urte jaso nazazu". Eta esan zion urteak: "Ez lurretiko gauzak ez dira hartzen eta".

Behin jainito futbol ikusi nahi zuen, eta jende asko zegoenez, elin zuen ikusi eta urteak batera igo zen ikusteko.

Bigarri bat erretzen haritzen eta morja batek esan zion:



5gn MAILAN

Gelako hamar mandamentuak

Bat, tente daqena tontolapikoena.

Bat bi, zutik daqenari beru beru ipura

Bat bi hiru, Matematika ez dakiemari
belarritik heldu

Bat bi hiru lau, ikasten ez duenari
jateko qasi qasi bakalaru

Bat bi hiru lau bost, alferra denari
txakurrak ipurdian kosk

Bat bi hiru lau bost sei, leihoa a
tzen duenak dakarrela dirua lasa

Bat bi hiru lau bost sei, zazpi, Komune
joaten denari zaplasteko bi.

Bat bi hiru lau bost sei zazpi zortzi
matoriana egiten duenak zigora merezi.

Bat bi hiru lau bost sei zazpi zortzi, bederata
lama bukatzen ez duenari baso bat ur qazi

ETA

Bat bi hiru lau bost sei zazpi zortzi bed
ratzi hamar, mota txikia ateratzen duena
alfer samar.

jar) 5.

ITSASOARI SO

Itsas ertzeko kaia

ontziz betea

arrantzaloak bertan dira

bete bete lanean

txoriñoak kantetan

kai gainetan

olatuen doinua ederragoa

-txoriñoak pipipo pipipo

olatuak plisti-plasta

egiten diote portuko ormari.

bestearen ondoren esaten hasiz gero, lehenengoz ikastolan irakaslea

ez dezatela denok batera tarearik bidali., eta .bigarrenez.....

Bai, haur horrek arrazoia du. Haurrenurtea denoz behar ditugun gauzak lortu beharra daukagu, eta ez badigute jaramonik egiten, gero eta gogorrago bultzatuz. Herriari ere gehiago eskatu behar diogu, Esate baterako:

- . Liburutogi gehiago
- . Jolastoki gehiago
- . Haurrentzako klub bat eta abar,.....

Lotsarik gabe eskatu beharko. Nagusiek egiten duten antzora.

Ea, bada! denok bildurik zerbait lortzen dugun

Idoia Gurrutzaga eta Arantza Beitia

SEIGARREN MAILA

HAURREN URTEA HELDU DA

- Egunon ama.


- Berdin Patxi.

- Ama, Gaur zineman ematen dut pelikula ikustera joaten uzten al didazu?

- Ez, ez, ... hori bai ezetz. Hamar urte dituzu, eta hamalau urtekoek ikusi behar dituzten pelikula ikustera!?

Ez nintzen joan; Leihatila ondora hurbildu ere ez. Baina urte honetan gauza batzu eskatu nahi dizkiegu nahi sieni.

Batez ere, askatasuna. Eta bata



OHITXALUPPA UME GUZTIEN
LA GUN NIRE
SALBAZIDA ZARRA

Kolorea emiozue

* * *

505

~~berriak berriak berriak berriak berriak berriak berriak berriak~~
~~berriak berriak berriak berriak berriak berriak berriak berriak~~
~~berriak berriak berriak berriak berriak berriak berriak berriak~~

BERRI samingarriak ere, ez nahi arren, TXALUPAREN lerro batzuk betetzen dituzte. Eta batez ere gure arteko edo ezagunen bat heriotza medio., hemendik joaten denean. Eta lehenengo TXALUPAN MariKarmenen aita tristeki aipatzen genuen bezala, gaurkoan, hilak 11an, igandean, Enrike maisuaren aita hil zela esan nahi dizuegu.

Bihoazkie Enrikeri eta bere familiartekoei gure saminik sentikorrenak.

Eta aurrera jarraitzen dugu berri abaniko hau eskainiz:

- Haurtzaindegiaren aldeko kampania amaitu da. Bere asmoa haurtzaindegiaren beharraz jabetzea zen. Ez omen zion jende asko bildu antolatutako ekintzetara, baina pausoa emana da eta orain jendeak orantzun behar.
- Elurra, elurra, aspaldian ikusi gabekoa, jautsi zitzaigun ostiralean eta oz mara mara, gogotik baizik. Ederki busti hobeto, zuritu zituen bazterrak eta bazterrean ez zegoena ere. Eta biharamunean, hango bola zaplastak eta burua makurtu beharrak. Baton batek otxera bekokia tinta gorritz eramanez izan arren, oz zen kolpe haundirik izan, eta botatzeko orduan umek oz ginen txarrenak eta gaiztoenak. Ez, ez, gaiztoenak maisuak ziren, bai, bai horrela....
- Otsaila aurrera doa, eta ihauteriak datoz. Leku askotan izaten dira. Eta guri okurritzen zaigu: Eta Ikastolan? Zer moduz ihauteriak festa handi batez ospatuko bagenitu? Ideia bota dugu. Ba nork jasotzen duen!!
- Kaleetako parteak alderdi politikoei estali dituzte. Hauteskundeak omen dira. Eta guk ezin botorik eman. Bestela guk geuk aterako genuke, umeen eskubideen aldeko alderdia. Eta kongresorako, Xogundo, Alexander, Andoni, .. Senadorako berriz, ba beste batzuk. Ba dago jendea!!
- Euskal preso gehienak, Sorian jarraitzen dute oraindik, gosez eta hiltzez.
- Iran-en Sha Joanarazi ondoren, Jomeini, bere atzetik jendotza izugarria mugitzen duen gizona jarri da agintean. Baina hau ere oz da bdolik gabe egin.


.....eta IkastolaPress izeneko agentzia informatiboak hemen bukatzen du gaur.....

GAJA

GAJA



Familia batetan hazteko eskubidea



Nazio batetakoa izateko eskubidea

- Hi, Xabier, hi
uste duk, haurra

tea edo horretaz

- Ba, nik uste di

nagusiak o. in a

posturaz lotsatu

direla eta horra

hau guretzat!...

- Orain arte, ord

nagusiena izango

beti,..

- Bai, guk beti ob



Hezkuntz

GAJA


GAJA

GA

zioak, beti osandakoa be-
tetzen eta urte hau pasa-
takoan ere, ikusiko duk,
nola ez diguten kasorik
egingo.


- Bai eta aurtan ere!!!
- HI, harrituta nago, mai-
suek nola laga digute hau
idazten

- ¿?, ¿?, ¿?
- Hona, behintzat, TXALUPA
koentzat eskubide batzuk



Hizkuntza bat egitoko eskubidea

FFF



Ongi tratatuak izatoko eskubidea

gohia jasotzeko

K I R O L A K

Dударик gabe, Txalupa honetako kirol informaziorik garrantzitsuena, Donostiako Atocha futbol zelaian jolastu zuten Real- Athletic izan zen. Jendea gainezka zen Atochan. Partidoaz gainera, Xabier Exposito Sanseko entrenadorearen omenaldia zegoen. Arbitroak, irten zenean, keinu polit bat egin zuen eta jendea txaloka hasi zen. Hurrengo ekipo biak irten ziren, ikurrin bat zeramatela. Orduan bai izan zela txalo hotsa!

Xabier Exposito gerotxeago irten zen. Txalo beroak izan ziren berarentzat. Realeko presidentek, Orbegozo, eta Athletiko presidentek, Duñabeitia, sari ederrak eman zizkioten Sanseko entrenadoreari. Partidu ona ez zen izan, baina hiru gol ikusi ziren. Bi Realarenak eta bat Athletiarena. Reala hasi zen golak sartzen, lehenengo aldiko hamaikagarren minutuan. Satrustegik sartu zuen. Bigarren parteko hogeitazazpi-garren minutuan, Alonsok sartu zuen ((Hobeki esateko Nuriezek bere portierian) bigarren gola. Danik sartu zuen Athletiaren gola partiduko azkenengo minutuan.

Futbola alde batera utzitas, esan daiteke Perurena harrijasotzaileak, berrehun eta hiruregetairu kiloko harria esku batekin jaso zuela.

Azkenik esan behar dut pilotako kanpeonatoan Pierola eta Maiz II.ak kanpeoi atera zutela.

GUREKIN

GUREKIN gaur andereño bat: Jone Etxabe.

Berari zuzentzen dizkiogu ondoko galderak, polizien esku egon zenean denok susto galanta hartu baikenuen.

TXA.- Kaixo, andereño.

JONE.- Kaixo, hala jar zaitozte hemen.

T.- Egun haik gogoratu nahi ditugu TXALUPAkoentzat.

J.- Galdetu lasai....

T.- Noiz joan zitzazizun polizia bila?

J.- Urtarrilaren 21ean gaueko ordu batetan etorri zitzazizkidan.

T.- Nora eramán zintuzten?

J.- Donostiako komisaldegira eramán ninduten berehala. Komisaldegi hau Gobernu Zibilean dago.

T.- Han, zer ikusi zenuen?

J.- Han jendea, jendea eta jendea, polizia asko,.....

T.- Zer nolako tratua eman zizuten? Jo zintuzten?

J.- Lehenengo egunean, bai, piskat. Gero ez.

T.- Guztira zenbat ordu eman zenituen han barruan?

J.- Guztira ondo kontatu nituen bai, 41 ordu luze.

T.- Noiz libratu zintuzten?


J.- 23an arratsaldeko 4retan.

T.- Ez dugu galdera gehiago....

J.- Ondo dago. Hala gurekin jarraitu.

HIZTEGIA

• estali: tapatu.



↳ jaramon: kaso, ardura

• ihauteriak: festak, denok disfratz banarekin.



- osasuntsu: osasun ona duena. E.b: Maisuak, behin ere ez daude gaisorik
- Samina: pena, mahigabea
- sentikorra: asko sentitzen denean